


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2026-06-26 / 905 ZENBAKIA / 22. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



## Ez ohiko Sanjuanak

Muturreko temperaturen ondorioz hainbat hitzordu bertan behera geratu dira / 6-15



**Bosko Anitz aisialdi taldean krisia lehertu da begiraleen eta Inspektoriaren artean / 6**

**Iritzia: "Eta milaka batera, zertarako gai ginateke?", Euskaltzaleon Martxa igaro berrian / 4**

**Iritzia: "Beste partida (Munduko Txapelketatik harago)", GGKEren eskutik / 2**

**ERREMONTARI**  
2026  
**FINAL HANDIA**  
EKAINAK 29, ASTELEHENA  
18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

IKUSKIZUN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA  
**SEGUROLA · JUANENEA VS EZKURRA II · AZPIROZ**

ERREMONTARI · FINALA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA  
**ANSA II · ZUBIRI VS ALDABE · BARRENETXEA IV**

SARRERAK  
QR code

ORNA, ALARRENEA, Petrolen, Orona, 65 SUKIZ, VOLVO, AIURRI

## KOMUNITATEA

NEREA URIARTE GOITIA EUSKADIKO GARAPENERAKO GOBERNUZ KANPOKO EUSKAL ERAKUNDEEN (GGKE) KOORDINAKUNDEKO LEHENDAKARIA

## Beste partida (Munduko Txapelketatik harago)

Egunotan hasi da Munduko Futbol Txapelketa, mundu osoko milioika zalek jarraitzen duten ekitaldi globala. Egun interesgarriak dira, bereziki partida bakoitza jarraitzen dutenentzat, baina baita urrunagotik bizi dutenentzat ere. Laster iritsiko da kanporaketa fasea, eta garaikurra jokatu dute Ipar Globaleko zein Hego Globala deritzogunaren parte diren herrialde pobretuetako selekzio handiek. Oraingoz, faboritoez motorrak berotzen dituzten bitartean, guk, garapenerako euskal GKEok, Hego Globaleko herrialde askotan ikusten dugun errealitatearekin alderatzen ditugu partida horiek.

Ekainaren 20an, adibidez, batzuk Brasil-Haiti partidaz gozatzen ari ziren bitartean, guk beste zeozer genuen gogoan: gaur egun jatorri haitiarreko 1.200.000 pertsona baino gehiago daudela ACNURen babespean, munduko hainbat lekutan errefuxiatuak edo Karibeko herrialdean bertan desplazatuak. Ziur aski, ostegunean Uzbekistan-Kolonbia ikusi zuten pertsona askok ez dute jakingo azken hori dela lurraren eta ingurumenaren defendatzaileentzako herrialderik hilgarriena, 2024an horrekin lotutako 48 hilketari izan baitziren, Global Witness-en arabera.

Nazioarteko lankidetzan eta elkartzunean dihardugunontzat oso zaila da beste aldera begiratzea. Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Munduko Egunean, ezinezkoa egiten zaigu ahaztea 2025ean 117 milioi pertsona zeudela etxetik kanpo, ihes egitera behartuta jazarpenagatik, gatazkengatik, giza eskubideen urrakatengatik edo nahitaez lekualdatzeko beste arrazoi batzuegatik.

ACNURen arabera, gerra eta ingurumen krisia dira exodo masibo horren arduradun nagusiak; baina horiei gehitu behar zaie giza eskubideentzako beste krisi larri bat: espazio zibikoaren itxiera. V-Dem institutuaren arabera, munduko biztanleriaren %70 baino gehiago bizi da espazio zibikoa zapalduta edo itxita dagoen herrialdeetan, hau da, eskubide zibil eta politikoak erabat gauzatu ezin diren lekuetan; eta soilik biztanleriaren %4 bizi da espazio zibiko irekietan.

Euskal GGKEok denbora daramagu eskubideen aurkako olatuaz ohartarazten, eta ez bakarrik Hego Globalean. Europan ere espazio zibikoa estutzen ari dela adierazten duten seinaleak dira, besteak beste, Erresuma Batuan edo Alemanian Palestinaren aldeko manifestazioak debekatzea, edo Loiuko aireportuan polizia-indarkeria erabili izana Global Sumud Flotillako kideen aurka. Izan ere, gure kontinentean, eremu zibiko erabat edo partzialki ireki batean bizi ziren pertsonen ehunekoak %63koa zen pandemia baino lehen, baina 2025erako %29raino jaitsi zen.

Hemendik gertu, Extremaduran eta Aragoian, PP eta Vox-en arteko itunak minimoetara murriztuko du garapenerako nazioarteko lankidetzaren politika, giza eskubideak trukerako txanpon bihurtuz eta zaurgarritasun egoeran dauden milioika pertsonaren babesa arriskuan jarritz. Eraso horiek estatu osora zabaltzeko arriskua dago, eta GGKEek eta koordinakunde autonomikoez kanpaina bat jarri dugu abian, Munduko Txapelketaren testuinguruan ere aldarrikatzeko lankidetzaren, justizia soziala, antirrazismoa, elkarbizitza...



Algeria eta Jordania arteko partida, Mundu Txapelketan. FIFA

ezin direla trukerako txanpon izan negoziatioetan. Elkartzuna normalena da, gure amarek eta aititeek erakutsi zigutena. Arraroa dena da hori gogorarazi behar izatea, eta eraso horien aurrean defendatu behar izatea.

Nolabait, metaforikoki bada ere, Munduko Txapelketa honek zerikusi handia du munduko herriok bizitzen ari garenekin; baina garaikur baten ordez, estadioetatik kanpo askoz baliotsuagoa den zerbait jokatzeko ari gara, hamarkadaz hamarkada eraikitzen joan den zerbait: gizarte aske bat, non pertsona eta komunitate bakoitzak bere oinarritzko eskubideak aitortuta izango dituen. Eta oraindik ere asko dago egiteko. Partida hori bizitzak salbatzeari buruzkoa eta giza eskubideak babesteko indartzeari buruzkoa da. Egunero, partida horretako jokaldi bakoitzaren parte gara Garapenerako gobernu kanpoko euskal erakundeok, eta badakigu zer dagoen jokoan; eta badakigu, halaber, oraingoz galtzen ari

garela. 100.000 pertsona baino gehiagoko oinarri sozialarekin, Euskadiko GGKEen Koordinakunde osatzen dugun 85 erakundeok munduko 69 herrialdeetan ari gara lanean, giza eskubideak, justizia soziala eta demokrazia defendatzen eta indartzen laguntzeko. Tokiko erakundeekin elkarlanean, euskal lankidetzak komunitate horiek epe luzera indartzeko helburua du, 949 proiektuen bidez, hainbat arlotan: osasuna; nutrizioa; hezkuntza; ur-zerbitzuen

hornidura, saneamendua eta higiena; haurren babesa; emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen ahalduntzea; giza eskubideen defentsa...

Urtarrilaren 15ean, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aurrean, Antonio Guterresek esan zuen: «Batzuek zainketa intentsiboetako gela batean jarri nahi dute nazioarteko lankidetzaren. Ziurtatzen dizuet ez dugula amore emango». Koordinakunde hau osatzen dugun gobernu kanpoko euskal erakundeok ere ez dugu egingo.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



# Mikel Urdangarin Castro, EAJren hautagaia Andoainen

Andoaingo EAJ-PNVk zabalduko oharraren arabera, udalerriko batzarrak aho batez erabaki du Mikel Urdangarin Castroren izendapena. Hautagai berriaren adierazpenak jaso dituzte, ohar berean: "ohore handia da erronka hau nire gain hartzea"

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

2027ko udal hauteskunderen atzera-kontakteta hasi da ordezkari dute alderdi politikoentzat. Hautagaitzaren berri ematen lehena EAJ-PNV izan da, bereziki, hautagai berria aurkeztu duelako. Imanol Goenaga Egibar aurreko hautagaiak agurra iragarri eta astebetara aurkeztu dute lider berria. Berau Mikel Urdangarin Castro kaletxikitarra izango da. Andoaingo EAJ-PNVren batzarrak "aho batez" erabaki du Mikel Urdangarin Castroren izendapena: "Izendapen horrekin, alderdi jeltzaleak aro berri bati ekin dio; ilusioa, gertutasuna eta datozen urteetako erronkei aurre egiteko prestatuago dagoen Andoain dinamikoago eta kohezionatuago bat eraikitzen jarraitzeko ambizioa ardatz izango dituen".

Aski ezaguna da 34 urteko andoainarra. Aurkezpen modura, honatx EAJ-PNVk bere oharrean nabarmendu duena: "Mikel Urdangarin Castro (34 urte) Andoaingo gizarte- eta kultura-bizitzan oso ezaguna eta konprometitu den pertsona da. Kaletxikiko bizilaguna eta bi alabaren aita, urte luzez parte hartu du herriko hainbat kultur ekimenetan, eta beti izan du lotura estua bere herriarekin".



Mikel Urdangarin Castro, berriki, Kaletxikin. EAJ-PNV



Pradales eta Urdangarin, maiatzean, Durangoko Landakon. EAJ-PNV

## Hautagaien aurkezpena

EAJ-PNVk berritu egin du hautagaitza. Zer egingo dute gainerako alderdiek? Ordezkaritza dutenen artean, logikoa dirudi Andoni Alvarez (EH Bildu) eta Aritz Alkain (PSE-EE) izango direla zerrendaburuak. Podemosen kasuan argitzeke dago egoera.

### Urdangarin: "Ohore handia da"

EAJ-PNVk, ohar berean, Urdangarin hautagaiaren adierazpenak jaso ditu: "ohore handia da erronka hau nire gain hartzea. Andoaindarrekin batera lan egiteko borondate sendoz egiten dut, gure herriak merezi duen etorkizuna eraikitzeko. Bidea Andoaingo herritarrekin batera egin nahi dut, haien kezkek entzunez, eguneroko arazoei erantzunez eta etorkizunari begira lan eginez. Politikak zentzua du pertsonen zerbitzura dagoenean eta egitateen bidez konfiantza sortzen duenean".

Alderdiak, era berean, garai berrietara egokitzeko erabakia hartu duela dio: "Mikel Andoainekin konprometitutako belaualdi berri baten ordezkari da. Ilusioa, gaitasuna, freskotasuna eta ideia berriak batzen ditu, andoaindarren ongizatea lehen-tasun duen proiektu politikoa indartzen jarraitzeko. Garai berriek energia berriak eskatzen dituzte, eta Mikelek ezin hobeto ordezkatzeko du etorkizuna erantzukizunetik eta konfiantzatik eraikitzeko borondatea".

## IN MEMORIAM

**ESTHER URRUTIA**  
ANDOAIN

### Bidaiari nekaezina



Esther Urrutia, 2008an. AIURRI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Zer da zuretzat bidaiatzea? galdetu genion, Aiurri egin genion lehen elkarrizketan. Erantzuna bere pasioaren erakusle izan zen: "Bizitza erdia. Bat bukatzen denean bestean pentsatzen hasten naiz: hura antolatu, egin eta ondoren kontatzeko. Niretzat, zalantzarik gabe, behar bat da; ezagutza da. Nire buruan ez da sartzan adibidez, hamabost egunerako Karibera joan eta han hondartzan egotea. Dagoeneko kontinente guztiak zapaldu ditut, baina bidaiatzeko grina hori ez zait ase". Mimo handiz prestatzen zituen bidaiak eta urteotan guttitan munduari hiru aldiz itzulia egin ziola esan daiteke.

67 urte zituela hil da, gaixotasun baten ondorioz. Irakaslea ogibidez, hogeitaz atzera, bidaiari buruzko txokoa izan zuen Aiurri hamaboskarian. Gudan bego.



**AIURRI**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

**Aiurri eskuragarri:**

Ebezez ebeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.

**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

**Maketzailea:** Maddi Trubuelo.

**Kudeaketa, harpidetzak:** Garbife Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus

**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Banatzaleak:** Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnieta).

**Diseinua:** Goiena / TOKIKOM.

**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

**Lege Gordailua:** SS-1078/04.

**ISSN:** 1698-4870.

**Tirada:** 4.000 ale.

**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



ESKELA

**Esther Urrutia Etxeberria**  
-Gudan bego-

Aiurri hamaboskarian "Bidaiari txokoa" ataleko kolaboratzaile fira. Plazera izan da zurekin lan egitea. Gudan bego.

Aiurriko irribideak, eskar onak.

## KOMUNITATEA

JASONE MENDIZABAL ETA GOIATZ URKIJO TAUPA MUGIMENDUA

## Eta milaka batera, zertarako gai ginateke?

Euskaltzeleon Martxa igaro berritan honako artikulua hau plazaratu dute Jasone Mendizabal Tauparen koordinatzaile eta Batuz Aldatu dinamikaren talde eragileko kideak eta Goiatz Urkijo Euskaraldiaren koordinatzaile eta Euskalgintzaren Kontseiluko zuzendaritza batzordekideak.

Giroa gori-gori egon zen pasa den larunbatean Iruñean: martxa eta dantza, aldarri eta izerdi, Euskaltzeleon Martxak txinparta berri bat piztu zuen Gazteluko Plazan. Martxaren biharamunetan, elkarri emandako berotasuna oraindik ere gure gorputzetan dugularik, aurrera egiteko gogo eta indarberrituta sentitzen gara. Eta orain, zer?

Dakizuen bezala, euskalduntzearen erritmoa bikoizteko erronka bota du Taupak, Euskalgintzaren Kontseilua osatzen duten gainerako bazkideekin batera: datoen 10 urteetan, urtean 15.000 herritar baino, 30.000 euskalduntzea, euskararen erabilera %15,3tik %20ra pasatzea, Euskal Herriko hiru administrazioek hizkuntza politikara bideratutako aurrekontua batez besteko %0,45etik %2ra igotzea eta euskara bere lurralde osoan ofiziala izatea.

Zenbakiak dira, bai, baina zenbaki horien atzean, herri proiektu bat dago: 300.000 herritar gehiago euskararen komunitatera erakartzea, milaka harreman berri euskaraz sortzea, familia, lagunarte eta lantoki askotan euskaraz presentzia handiagoa izatea. Azken batean, euskaraz bizitzeko behar ditugun baldintzak sortzeaz ari gara, eta horretarako, erronka egingarri bezain anbiziotsuak behar ditugu. Taupari dagokionez, gure muineko helburua euskararen erabilera eta euskaltzetasuna sustatzea

izanik, erabilera biderkatzeko erronkari heldu diogu, batik bat, baina badakigu erronkari heltzea ez dela aski, eta hau nola lortuko dugun lantzea ere badagokigula.

### Lurzorua eta ongarrria

Euskal Herrian bizi diren herritar gehienek euskara ulertzea da erabilera biderkatzeko beharrezko lurzorua. Ulermenaren indarra gutxiesteko joera dugu, akaso, gure helburuak apaltzea delakoan, baina aintzat hartu behar dugu azken helmuga baino, lehen geltoki bat dela, eta bere horretan, eraldaketa soziala dakarrela. Hizkuntza bat ulertzea herri baten bizitza sozialean, kulturean eta demokratikoan parte hartzeko atea parez pare irekitzea da, eta bizikidetzat linguistiko bidezkoago baterako baldintzak sortzen ditu, estres linguistikoa gutxitzen duelako eta hizkuntza-hautu askeagoak ahalbidetzen dituelako.

Eta lurzorua ulermena bada, hizkuntza praktika egokiak dira ongarririk. Badira jokabide batzuk, oinarrikoak izanagatik, urratzaileak direnak. Bi aipatuko ditugu: bata, lehen hitza euskaraz egitea, edonon eta edonoz – Euskal Herriko bi biztanletik batek euskara ulertzen duela jakinik, parean dugunak ulertzen ez duela aurreikustea ez al da haren gaitasuna gutxiestea? Zergatik jakingo dugu guk euskaraz, eta ezezagun horrek ez?–; eta bestea, ulertzen duenari euskaraz egitea –nola egingo du ulertzen duenak hitz egiteko urratsa inoiz inork euskaraz egiten ez badi?–.

Euskararen ulermena orokortzea eta hizkuntza praktika berriak hedatzea gakoak dira. Eta gutariko bakoitzaren ahalegin individualak ingurukoengan eragin itzela izan badezake ere, sinistuta gaude ahalegin



Euskaltzeleon Martxaren amaiera. KONTSEILUA

kolektibo bat ere behar dugula. Euskaraz bizitzeko baldintza errealak behar ditugu: politikoak, sozialak, kulturalak eta materialak. Euskaraz ekosistema oso bat izan dezan, aurrez aurre dugun erronkaren tamainako neurriak behar ditugu. Idurre Eskisabelek Iruñean aldarrikatu bezala, minorientzako hizkuntza-politikak atzean utzi, eta hizkuntza-politika anbiziotsu eta ausartak indarrean jartzeko unea da.

### Lurra ereiteko garaia

Euskaraz bizitzeko behar den dena aldarrikatu dugu, euskaraz bizitzeko baldintza errealak behar ditugulako. Gure ahotsa entzunarazi dugu, baina ez dugu inoren zain geratzeko asmorik. Sortzeko garaia da. Lurra ereiten jarraitzeko unea. Ez dezagun ahaztu euskararen aurrerapauso handienak herritarren ekimenetik etorri izan direla. Ikastolak, euskaltegiak, herri aldizkariak, kultur taldeak, euskara elkarteak edo Korrika eta Euskaraldiaren gisako

ekimenak ez ziren bulego batean diseinatutako proiektu hutsak izan: herritarrok sortu genituen, herritarrok egin ditugu posible.

Datorren hamarkadari begira, badugu erronka: euskararen erabilera %20ra igotzea. Horretarako, euskararen ulermena orokortu eta hizkuntza praktika berriak heda daitezten lan egingo dugu Taupan, euskara denontzat izan dadin eskuragarri, eta denon artean bultzatzea dezagun gehiago erabil dadin. Erronka

anbiziotsua da, baina egingarria ere bai. Pentsa dezagun une batez: zertarako gai ginateke Euskal Herriko auzo eta herri guztietako euskaltzaleak saretuta egongo bagina? Gure ametsa euskaraz bizi nahi duen herri ireki, askotariko, ahaldundu eta sortzaile bat bultzatzea da, euskaltzeleon indarra saretu eta biderkatzea, norbanakoen ahaleginak kolektibizatzea. Mugimendu zabal bat eratzen ari gara; izan nahi duzu parte? Saretu gurekin: taupamugimendua.eus.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

## ADIERAZPENA

ERRESPETATU ANDOAIN ANDOAINGO HERRI-PLATAFORMA

# "Gipuzkoako Foru Aldundiak errespeta dezala Andoaingo udalerrria"

"Gipuzkoako Foru Aldundiak SESTRA kontratatu zuen LAZO proiektua idazteko, eta 2025eko uztailean, 244 andoaindarrek parte hartzea eskatzeko eta saihebidia defendatzeko baliabide bana aurkeztu genion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Atzera bota zituzten.

Urtebete igaro da eta gaur, orduan bezala, andoaindar talde garrantzitsu baten aurrean Bildu gara berriro, Errespetatu Andoain plataformako ordezkari bat, Aita Larramendi Ikastola gure eskuinean eta Bordaberriko enpresetako ordezkariak gure ezkerrean.

Duela bi hilabete, GFAk kontratuaren baldintzak aldatu zituen, eta herritarren parte-hartzea bere gain hartu zuen, ingurumen-txosten arruntaren eskakizuna sartu baitzuen.

Atzo, astearte, ekainak 16, GFAREN Gobernu Kontseiluak LAZO proiektuaren tramitazioa abiatu zuen, proiektua 30 egunez jendaurrean jarritz. Akordio hau gaur argitaratu da. 2011n bezala, hauteskunde bezperan, EAJk gobernatutako Gipuzkoako Foru Aldundiak kea saltzen digu:

2011. urtean gauzatu ez zuten saihebidia batekin eta gaur egun proiektu tekniko baten euskarririk ez duten



Goikoplazan egin zuten agerraldia, aurreko astean. AIURRI

Adimen Artifizialarekin sortutako irudiekin.

Eskatzen dugu:

1. Udalak 2025eko urriaren 30ean onartutako mozioa defenda dezala: LAZOA EZ.
2. GFAk errespeta dezala Andoaingo udalerrria, ez baita udal-arazoa. Eskala horrekin bat datorren konponbidea behar duen Europako trafiko-arazo batetaz ari garelako.
3. Andoaingo bizilagunak eta enpresak aktiboak izan daitezela alegazioak

aurkezteko epean, lehen CII proiektua geldiarazi badugu orain LAZOA gelditzea dagokigulako. Gogoratu 2011. urtean saihebidia Andoainerako proiekturik onena zela.

**"LEHEN CII PROIEKTUA GELDIARAZI BAGENUEN ORAIN LAZOA GELDIARAZTEA DAGOKIGU"**

2021ean proiekturik onena CIIa zen.

2023an CII proiektua kaxoian sartu zen.

Eta 2025ean esaten digute LAZOA dela onena...

Utz diezaiogun behingoz adabakiak jartzeari! Lazoa ez!

**PLATAFORMAK DEITUTA, DOZENAKA LAGUN ELKARTU ZEN GOIKOPLAZAN, EKAINAREN 17AN**

## Lazo-proiektuaren jendaurreko informazioa

Andoain.eus eta Gipuzkoa.eus webguneetan xehetasunak aurki daitezke

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalaren webgunean Gipuzkoako Foru Aldundiak argitara emandako buletina argitara eman du, PDF formatuan. Era berean, Gipuzkoa.eus webgunean, errepideen atalean, egitasmoen xehetasunak aurki daitezke. Zehazki honako esteka honetan: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/errepideak/proiektuak>. Egitasmoetako bat "Bazkardon (Andoain) A-15etik N-1era Zuzenean Lotzeko Begiztaren Proiektua (2-Nc-12/2025)" izenburukoa da. Eta bertan ageri dira memoria, plegua, planoak, aurrekontua eta segurtasuna-osasuna atazak. Banaka edo osorik deskargatu daitezke. Goi-buruak egitasmoaren muina jasotzen du, honako hitz hauekin: "Andoainen, hegoalderantz (Tolosa) joateko, gaur egun errei bakar batean egiten da A-15 eta N-I errepideen arteko lotura, Bazkardoko lotunetik".

Jarraian, proiektuen hurrenkera horretan, "Andoainen, Sorabillako N-I-445-2 Bide-Adarrean, Biribilgunea Egiteko Proiektu Berrikusia" izenburukoa agertzen da. Eta hor ere memoria, plegua, planoak, aurrekontua eta segurtasuna-osasuna atazak deskargatzeko aukera dago.

## KOMUNITATEA

AITA LARRAMENDI IKASTOLA ANDOAIN

## Kulturaniztasuna agerian

Aita Larramendi ikastolako komunitatea osatzen dugun jatorri ezberdinetako familiei ikusgarritasuna emateko asmoz, aurten lehen aldiz, ikastolako ikasturte-amaierako festan, tea eta jakien postua jarri zen,

hainbat lurraldetako familia jaiaren parte sentitzeko helburuarekin.

Magrebiar lurraldea osatzen dutenetako 3 herrialde izan dira aurtengoan parte hartu dutenak: Mauritania, Argelia, Maroko eta Pakistan. Bertako

jakiak, gozo nahiz gaziak, dastatzeko aukera egon zen, baita tea edatekoa ere. Henna tailerrak gorputz atal ezberdinak apaintzeko aukera eman zuen. Aurreko egunetan, Lehen Hezkuntzan, maila

ezberdinetako hurrek lurralde hauen lanketa egin zuten, ikastola apaintzeko marrazkiak eginez.

Postuaren salmentatik ateratako dirua Aita Larramendi ikastolan kulturartekotasuna,

integrazioa eta inklusioa lantzeko ekintzak sustatzeko erabiliko da. Hurrengoetan, beste lurralde ezberdin batzuek ere parte hartzea litzateke asmoa.

Izan ere, aniztasunak aberastu egiten gaitu.



Urrian jarduera egin zuten San Juan plazan. AIURRI



Txaranga eta Bosko Anitz aisialdiaren arteko bereizketa egin da ikasturte honetan. AIURRI

# Zer ari da gertatzen Bosko Anitz aisialdi taldean?

Bosko Anitz Aisialdi taldeko begiraleek adierazpena zabaldu dute sare sozialetan eta bertan jasotakoek zabalkundea izan dute Urnietako komunitatean. Aiurrik, era berean, salestarren bozeramaile baten adierazpenak jaso ditu

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Une honetan begirale ohiak dirrela esan daiteke. Eta eurek adierazitakoaren arabera, kolokan legoke aisialdi taldearen etorkizuna: “Ikasturte amaierako ebaluazio bileraren ondoren, Inspektoriak –lurraldeko salesiar agintaritzaren goren, Madrilen egoitza duena– Bosko Anitzen egungo ekintzen uzteari buruz hartutako erabakiaren berri izan genuen. Azpimarratu nahi dugu hau aldebakarreko erabakia dela, prozesuan parte hartu gabe edo aurretiko kontsultarik egin gabe jakinarazi digutena”.

Eten bat egon dela dirudi, begiraleen salaketari erreparatu-ta: “Erabaki hau jakinarazi zigituenetik, blokeatu egin gaituzte, aurretiko abisurik gabe, orain arte erabiltzen genituen posta elektronikoko kontuetako eta sare sozialetako sarbideetan”.

Jarraian eurek egindakoa balioan jarri dute: “Begirale gisa, gure denbora, ahalegina eta ilusioa boluntario gisa eskaini dugu, proiektu honen hezkuntza eta giza balioak kontzentzitate, beti Bosko Anitz izan behar zuela ulertzen genuen horretan oinarrituta: guztion-

tzako leku atsegina eta irekia. Urte hauetan eraiki dugun guztia familien konfiantzari, taldeko kide izan direnen konpromisoari eta herri osoaren maitasunari esker izan da posible. Egoera honek tristura eta ziurgabetasuna sortzen digun arren, Bosko Anitzen balioan eta ordezkatzeko duen guztian sinesten jarraitzen dugu. Beraz, proiektu hau defendatzeko lanean jarraituko dugu eta, ahal den neurrian, gauzak hainbeste urtetan zehar ezagutu eta elkarrekin eraiki ditugun modura itzul daitezten”.

## Salestarren ikuspegia jaso du Aiurri astekariak

Aiurri astekaria Salestarrekin jarri da harremanetan eta bozeramaile batek euren ikuspegia azaldu du. Nork nori zer agindu, botere-harreman gatazka baten aurrean gaudela esan daiteke. Hori ondoriozta daiteke bozeramailearen adierazpenei entzunda. Galdera bat botatzen du airera: “Nork erabakitzen du zein den Bosko Anitz aisialdi taldearen identitatea? Begiraleen esku uztea ez da bidezkoa eta, gainera, arriskutsua izan daiteke”.

Aisialdi-taldearen lanarekin pozik eta eskertuta daude, baina faltan bota dute ikuspegi elizkoian sakontzea. Eta helburu hori bermatuko ez dela ikusita, krisia sortu dela dirudi: “Salesiar ikastetxetik abiatzen diren jarduerak bi izaera dituzte. Lehena, gizarte mailakoa. Bigarrena, eliza mailakoa. Ikasturte berrirako Bosko Anitzeko eragileei salesiar kutsua indartzeko desioa agertu diegu. Hainbat kasu daude, beste udalerritan, norabide horretan doazenak eta Urnietan ere horretan sakontzea eskatu diegu begiraleei. Haiekin hizketan jardun dugunean jabetu gara ez dagoela euren buruan salesiar ideietan sakontzeko borondaterik. Eta penaz diogu hori, oso eskertuta gaudelako denbora luzean ondo aritu direlako lanean. Erabaki hau ez da Urnietan bakarrik hartzen, Inspektoriarekin batera eman ditugu urrats hauek. Desio dugun horrekin bat egin-

go duten boluntarioak nahi ditugu aisialdiko dinamikarekin jarraitzeko”. Gaurkoz ez dirudi horrela denik eta airean dago ikasturte hasiera. Etorkizuna, nolana ere, aisialdi taldea martxan dela irudikatzen dute: “Eskertzekoa da begiraleek egin duten lana, Urnietako gazteei erakutsi dien maitasuna. Eskertuta gaude eta begirale horiek Bosko Anitzen jarraitzea nahiko genuke. Salesiar kutsuko ekimen gehiagotan murgildu beharko lukete, hori bai, eta begirale batzuk prestutasuna agertu dute baina beste batzuk ezezkoan tematu dira”.

## Txarangaren auzia lehenxeago lehertu zen

Maiatzaren amaierako Gazte Festetan txaranga beste logotipo, izen eta janzkerarekin agertu zen plazara. Zerikusia du auzi honekin? Salesiar ikastetxeko bozeramailearen erantzuna, jarraian: “Gertaerekin badu harremana, baina beste momentu batean gertatu da bereizketa. Ez ohiko gertaera bizitzen ari ginen txarangarekin. Bosko Anitzen jaio zen eta, denborarekin, txaranga pisua hartu du baina sorreran zuen helburu hezitzailea bidean galdu da. Ikastetxeko jarduera bat izateari utzi zion eta, epe erdira, txaranga bere izaera propioa izatea aztergai genuen. Baina kudeaketa ekonomikoarekin ezberdintasunak sortu ziren eta horrek aurreratu zuen txarangaren eta Bosko Anitzen arteko bereizketa egin behar izana”.



Judit Alday, Urnietako Idiazabal kaleko bulegoan. AIURRI

# "Gure bezero gehienak urnietarrak dira"

## JUDIT ALDAY FISIOTERAPEUTA

Idiazabal kaleko negozioak zerbitzua osatu eta aberastu du: osteopatia, zoru pelbikoa eta eskuen bidezko terapia nahiz terapia inbaditzaileak lantzen ari dira

### Lide Ruiz Telleria URNIETA

**Negozioa berri duzue. Zertan nabaritu du bezeroak berrikuntza hori?**

Kontsulta txiki batekin hasi nintzen, eta bezeroekin harremana oso gertukoa izan da. Hori garatzeko, zentroa handitzea ideia ona iruditu zitzaidan. Ikusi nuen bezeroa askoz modu integratuago batean harremantzeko aukera ikusi nuen. Orain dugun ekipoak ikuspegi desberdin bat konpartitzea ahalbidetzen digu. Elkarlanean egiten dugulan, eta eboluzioa ere denon artean aztertzen ditugu.

### Berrikuntzak berarekin dakar zerbitzuak dibertsifikatzea?

Bai. Orain arte, ez dugu zoru pelbikoa landu, horren inguruko formakuntza aspalditik daukat, baina ez dut hori lantzeko aurrerapausorik eman. Orain, berriz, formakuntza berri dut, eta zerbitzu hori ematea erabaki dugu. Nirekin batera, Paula Sanchez urnietarrak ere zerbitzu hori eskaintzen du. Horrez gain, ekografia inbaditzaileen formakuntza egin genuen Ane Marinek eta biok, eta gure kasuan, esku terapia asko erabiltzen dugu. Hortan datza zerbitzua.

Nire kasuan, ni osteopata naiz, eta zerbitzu hori ere ematen dugu. Zerbitzu hori gurekin hasi berri den Xanti Zubeldiak eskaintzen du, bera osteopata da, eta gradua amaitu ostean gurekin hasi da lanean. Bestalde, Unai Iraola ere gurekin hasi da lanean, bera fisioterapeuta eta dantzaria da, eta lan taldea handitzeari esker aurretik eskaintzen ez nituen zerbitzuak ematen ari gara. Adibidez, azaldutako gain, farmazeutika integratua dugu eta horrek hobekuntzak dakartzela sintoma desberdinak dituztenean elikadura-gehirriak

eta elikadura jarraibideak ematean.

### "Mina seinale bat da", diozue sare sozialetan zabalduzako mezu batean. Azalduko zenuke hori?

Bai. Nire ustez, mina prozesu baten sintoma da. Prozesu horretan gure nahia izaten da pazienteak entzutea, hau da, ez dugu arreta soilik minan jartzen. Bere historia pertsonala entzuten dugu, zein momentuetan dagoen, zein sintoma dituen... Ez da bakarrik "mina daukat hemen", eta kitto. Entzuteak asko egiten du. Gaur egun, oso arreta gutxi jartzen diogu entzuteari, eta niri iruditzen zait, horri garrantzi handia eman behar diogula.

### Bezeroari entzutea ezinbestekoa dela deritzozue.

Bai. Oso garrantzitsua da bezeroa sartzen denetik berak sentitzea bera entzuten ari garela, hori enpatiaren bidez egiten dugu, gure profesionaltasuna mantenduz. Lortzen dugula esango nuke. Ez da soilik mina kentzea, prozesua haien ondoan pasatzen ditugu, haien ere prozesuaren parte izan behar dute. **Zer nolako irismena duzue Urnietan? Bezero asko dituzue? Kanpotik ere bai?**

Ez. Gure bezero gehienak Urnietakoak dira, baina egia da inguruko herritatik jende asko datorrela, batez ere: Hernani, Lasarte, Donostia eta Usurbiletik. Orain zerbitzu berriak ematen hasi gara, eta orain klaseak ere ematen ditugu, zehazki: zoru pelbikoa eta indarra lantzeko klaseak, indar funtzionala eta postura-kontrola lantzekoak ere. Zerbitzu horiei esker, uste dut, asko indartzen dugula ematen dugun terapia. Izan ere, lesio iraunkorra denean, mugimenduak irakastea garrantzitsua iruditzen zaigu. Horrez gain, nerbio-sistema lantzeko yoga zerbitzua ere ematen dugu.

**Zertan espezializatzen ari zarete?** Orain bertan, gehien lantzen ditugun alorrak honako hauek dira: osteopatia, zoru pelbikoa eta eskuen bidezko terapia eta terapia inbaditzaileak.

**Bestalde, zure ibilbidean, nabaritu duzu bezeroen kasuistikan aldaketaren bat. Zer gaiz edo arazo nagusitzen dira orain?**

Ez nuke esango lesioak asko aldatu direnik. Egia da, zoru pelbikoa lantzen hasi geranetik jendea gehiago etortzen ari dela hori lantzeko. Askotan beste

lesio batengatik etortzen dira, eta konturatzen gara zoru pelbikoarekin erlazioa duela. Egia da, jende askori horren inguruko kezak kontsultatzea kostatzen zaiola, izan ere, harreman sexualetan min bat izatea edo inpotentzia funtzional bat izatea ez da erraza kontatzea, eta esango nuke, orain jendea gehiago irekitzen ari dela, eta hori normalizatzen. Horrez gain, egia da ekografa dugunetik jende gehiago etortzen ari dela, baina besterik ez.

Bestalde, gaur egungo bizitzan nolakoa den kontuan hartuta, estresak sintoma akso eragin ditzake: zerbikalgia, ATM (artikulazio tenpromandibularra), esate baterako. Horrekin, zirekusi handia du estresak eta asko errepikatzen ari da. Aldaketei dagokionez, esango nuke gero eta nerabe gehiagok dituztela bizkar arazoak, mugikorra erabiltzean edukitzen dugun postura zerbikal horren ondorioz. Zentzu horretan, bezero berriak izaten ari gara.

### Gizarte hiperkonektatu eta estresak joatekoa eragin berezia du gorputzean?

Bai, pantailen erabilera eragin handia izan du. Lan egiteko moduak asko aldatu dira, lehen lan dinamikoak zirenak gaur egun estatikoak dira. Hori dela eta, postura ez dugu lantzen, eta umeak geroz eta denbora gehiago pasatzen dute pantailaren aurrean behera begira, karga zerbikala izango balute bezala. **Adinean gora denok beharko genuke jo fisiora?**

Beti da onuragarria. Balorazio bat egitea, mugimendu blokeo bati mugimendua ematea, mugitzen ondo ikastea... Horren inguruko ezjakintasuna baldin badugu, errazagoa da leisoak edukitzea. Lehen adibidez, ez zen hain ohikoa emakumeek indar ariketak egitea eta entrenamendu funtzionalak egitea, eta gaur egun, geroz eta gehiago dira horretan ari direnak. Uste dut, garrantzitsua dela horretan murgildu aurretik, kontrol postura on baten bidez hastea.

### Zein ordutegi duzue?

Aurretiko hitzorduen bidez egiten dugu lan. Normalean pazientearen beharretara egokitzen gara, baina ordutegiari dagokionez, goizeko 08:00etatik arratsaleko 20:00etara irekita dago. Ez dugu eguerdian isten, eta udaran ere irekita egongo da.



Axeri-dantza taldeko kideek taldeko argazkia atera zuten Goikoplazan, San Juan egunean. AIURRI

# Muturreko tenperaturak baldintzaturiko jaiak

Euskalmetek alarma gorria ezarri zuen ekainaren 22, 23 eta 24rako Andoainen eta EAEn. Ondorioz, erakundeen erabakien baitan izan da San Juan jaietako hitzorduak gauzatzea ala bertan behera uztea. Ekitaldi asko geratu dira bazterrean, beroaren eraginez

## Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Nekez irudika genitzake Axeridantzarik gabeko Sanjuanak. Baina halaxe izan da eta, adi, zeren eta amalurra mugarik gabe berotzen ari den aro honetan, antzeko egoerak errepikatuko dira. Bertan behera utzi zuten, beraz, Andoaingo San Juan eguneko hitzordu seinalatu. Hura ikus gabe geratu dira andoaindarrak, aurtan. Ulertzekoa da egoera, izan ere, iaz ere bero-sapak eragina izan zuen Goikoplazako ekitaldian: hainbat partaide eta ikusle artatu behar izan zituzten.

Badira beste zenbait ekitaldi bertan behera geratu direnak. Hots, kros-mixtoa, haur danborrada, BDZk antolatutako talosolidarioa, artisautza azoka eta harekin lotura zuten haur jolasak... Beste bi kasutan ekitaldiak Bastero Kulturguneko auditoriora eraman dituzte. Pailazoan emanaldia eta bertso-saioa, hain zuzen. Eta, azkenik, badira atzeratu diren ekitaldiak. Esaterako, adinekoen bazkaria zeina San Pedro egunez egingo den eta Kontzejupeko finalak. Ostiral arratsaldean jokatuko dira 3-4. postuak eta finala.

San Juan sua nabarmen txikiagoa izan da, aurtan. Gauzak honela, eguzkia ezkututzen deanean hasi da festa Andoainen. Gaez gozatzeko jaiak izan dira 2026koak. Jendetza erakarri duten ekitaldien artean, honako hauek: Joseba eta Bakartxoren erakustaldia, Su Ta Garren eta Puro Relajoren kontzertuak, Queen gogoan hartuz Udal Musika Eskolak eta lagunek egindako erakustaldia...

Eguraldiak eraldatu du festa baina, oro har, andoaindarrak bikain erantzun dute muturreko egoeraren aurrean.

## Datozen egunotan, bi hitzordu



Kontzejuoekoa, artxiboko irudian. AIURRI

**Kontzejupekoa, ostiralean** "Oraingoan bai!" mezua zabaldu du Gaztelekuk, sare sozialetan. Ostiralean izango da, arratsaldeko 18:30etan hasita. Finalean, buruz buru, bi bikote: Beñat Salbador-Iñaki Lopez de Munain vs. Xabier Alkorta-Oier Belauntzarán.



Adinekoen bazkaria, artxiboko irudian. AIURRI

**Adinekoen bazkaria, San Pedro egunean** 80 urtekoak ez daude bazkaria barkatzeko prest. Udalak hitzordua astebetetz atzeratzea erabaki zuen eta, hala, datorren astelehenerako deitu dituzte berriro.



Udal Musika Eskolako ikasleek kaleak girotu zituzten, jaien hasierako ekitaldian. AIURRI

## "Kultura eta gizarte balioetan hazten segi dezagun Andoain"



Oiartzabal, jaiari hasiera eman zion unean. AIURRI

Andoaingo musikaria eta sortzailea eskarmentu handikoa da eta, aurrean, merezitako omenaldia jaso zuen. Ohoretzat hartu zuen pregoia irakurtzeko aukera eman izana. Aukera ondo baliatu zuen, jaiaren eta kulturaren alde mintzatzeko. Eta, nola ez, kantuan amaitu zuen bere adierazpena. Babes handia eta txalo zaparrada jaso zuen Joxe Mari Oiartzabel San Juan jaien hasieran.



Xake txapelketako sari banaketa ekitaldia, elizaren arkupeetan. AIURRI



Oiartzabal eta etxeokak, Alvarez Lete alkatearekin eta Uribealagorekin. AIURRI



Bertxin elkarteko kideek ekitaldi-sorta antolatu dute egun hauetan. AIURRI



andoa**INDARRA**  
euskaraz



Bertzesfer musika taldeko kideak, jaietako lehen emanaldian. AIURRI



Bakartxo eta Joseba dantza eskolakoen erakustaldira jendetza hurbildu zen Goikoplazara. AIURRI



Kantujira taldeko kideak Goikoplazatik abiatu ziren. AIURRI



Olagain Udal Txistulari Elkarteko kideak, lagunak eta Urki dantza taldeko kideak, taldeko argazkian, ohol-tza gainean. AIURRI



Klaapeko kideek erakustaldi bikoitza eman dute Andoainen, denbora tarte txikian. AIURRI



Andoindarra elkarteak, Agustin Leitzakoei bisitaldia egin ostean. AIURRI



Bakartxo eta Joseba dantza eskolako ikasleak. AIURRI



Su Ta Gar taldeak erakustaldi berria eman zuen Nafarroa plazan. AIURRI



Oihane Ulanga, laguntzailez inguratuta, Nafarroa plazako oholza gainean. AIURRI



Eneko Parada, Oihana Conde... lagun ugari izan zituen alboan. AIURRI



Lebiton erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak, buruhandien topaketaren amaieran ateratako argazkian. AIURRI



Mugaz dantza taldeak Kontzejupean egin zuen emanaldia, beroaren eraginez. AIURRI



Txuleta festa ohikoa bilakatu da San Juan jaietan. Dozenaka lagun elkartu zen bazkarian. AIURRI



Andoingo eskolako Aitor Amutxastegi, bizikleta festako hainbat partaiderekin. AIURRI



Agintariek formatu laburreko Soka Dantza egin zuten, eta soilik bi gonbidaturekin, tartean Joxe Mari Oartzabal aurtengo pregoilaria. AIURRI

# Ez ohiko bezpera eta San Juan eguna, Andoainen

San Juan egunez, Goikoplaza hutsik. Iragan pandemikoa gogora ekartzen zuen irudia zen hura. Muturreko eguraldiak erabaki potoloak hartzera behartu du Udala, horien artean, andoaindarrek bereziki maite duten Axeri Dantza

## Xabier Lasa ANDOAIN

Gauetz jendetza ibili da, eguna itzaletan edo uretan igaro ondoren. Hala, Goikoplazan eta Nafarroa plazan ehunka musikazale elkartu zen astearte arratsaldean. Oro har, gaztetxoak, Nafarroa plazan. Helduak, bes-

talde, Goikoplazan, Queen taldearen bertsioez gozatzen. Biharamunean, San Juan egunean, bertan behera utzitako ekitaldiak ez ziren gutxi izan: artisautza azoka, herri-kirol erakustaldia eta andoaindarren artean hain maitea den Axeri Dantza.

Goikoplaza hutsa zegoela, udal batzarraldi aretoan elkartu ziren hainbat axeri eta txistulari udal ordezkariekin. Ekintza sinboliko egin zuten: dozena erdi bat bluxa gorri udaletxeko balkoitik eskegi zituzten. Pena handiz, axeriek kale egin dute aurtzen.



Udal Musika Eskolako hainbat emakume kantari. AIURRI



Urki Dantza Taldeak, besteak beste, Habanera dantzatu zuen. AIURRI



Udal ordezkariak taldeka egin zuten zortzikoa, Soka Dantzan. AIURRI



Abesbatza gazteak errepertorio aberatsa landu zuen San Martin parrokian. AIURRI



Ohikoa dena baino San Juan su txikiagoa jarri dute aurten Goikoplazan. AIURRI



Hainbat ahots gaztek hartu zuen parte San Juan suko ekitaldian. AIURRI



Gonbidatu bereziekin osatu zuen Queen-i tributoa Udal Musika Eskolako Bandak.



Elkartearen atarian, goizaldean amaitu zuten danborrada saioa Agustin Leitzako kideek. AIURRI



San Juan jaien  
jarraipen zabala  
webgunean

Ehunka argazki eta dozenaka bideo, klik bakarrera  
**ATAL BEREZIA INTERNET SAREAN**

www.aiurri.eus



Aurreko urteekin alderatuta, suaren eta sugarren tamaina askoz txikiagoa izan zen. AIURRI



Udal Musika Eskolako ikasleak, Txanbolineoekin batera. AIURRI



Ilundu aurretik jendetza zegoen Akelarrea ikusteko prest. AIURRI

# Alarma egoerara egokitutako ospakizuna egin zuten Urnietan

Udalak Plazido Muxika plazan antolatu zuen sua izan zen udalerrri osoan baimendutako bakarra. Bero izugarriagatik alerta gorria ezarri zuen Euskalmeke eta horrek eragin zuzena izan zuen Urnietako San Juan bezperako ospakizunean

**Jon Ander Ubeda** URNIETA

Musika doinuekin abiatu zen ospakizuna astearte gauean. Txanbolin elkartekoak eta Udal Musika Eskolako kideak girotu zituzten lehen minutuak. Eta, amaiera aldera, Txanbolinek borobildu zuen ospakizuna. Tartean, Akelarrea eta San Juan suaren piztuera. Intentsitatez beteriko ordu erdiko erakustaldia prestatu zuten Urnietako Sorgiñek. Haiei esker San Juan bezperako suak ikuskizun kutsua hartzen du. Aipatzekoa da Akelarrea prestatzeko sustatzaileek eta haien laguntzaileek hartu

ohi duten lana. Urnietarren gogoko ekitaldia da dozenaka elkartzen baitira ikuskizunaz gozatzen. Akelarreari ekin aurretik Paqui Navasek eskertza adierazi zien bidelagun dituzten eragile guztiei, bereziki, udaleko langileriarri.

Musika, akelarrea eta suaren piztuera. Hurrenkera horretan egiten da ospakizuna Urnietan. Aurtengo sua nabarmen txikiagoa zen, alarma egoerak hala eskatzen zuelako. Ez zen garrantzi handiko aldaketa, sua noiz piztuko dozenaka haur eta gazte elkartu zelako.

**Udalaren oharra**

"Ezohiko testuinguruan ospatuko da; izan ere, tenperatura altuek eta LABIk muturreko beroagatik ezarritako alerta gorriak baldintzatuko dute gaua. Hori dela eta, Udalak debekatu egin du baimendu gabeko guneetan sua egitea. Egoeraren aurrean, Udalak herritarrei eskatzen die ez dezatela inolako surik piztu, Plazido Muxikan egingo den su publikoaz gain. Su hori modu kontrolatuan egingo da, eta ospakizuna segurtasun osoz gauatzeko beharrezko neurri guztiak hartuko dira".



San Juan jaia gogoan hartzen duen pieza jo zuten sua piztu eta berehala. AIURRI



Urnietako  
udala



Erratzak eskuetan ageri dira Urnietako Sorgiñak. AIURRI




Ikuskizunean sorgiñen eraldaketa gauzatzen da. AIURRI




Aktoreak, lanean. Haiei begira, dozenaka lagun. AIURRI




Paqui Navas Izquierdo izan zen Akelarrearen aurkezlea. AIURRI



Saioa Urbistondo.



Antton Jauregi.



Izaro eta Maren.

## Ospakizuna, protagonisten ahotan

Saioa Urbistondorentzat egun handia da ekainaren 23koa: "Akelarrea, hitz batean, niretzat, espektakulua da. Barrutik bizita zoragarria iruditzen zait. Oso berezia. Akelarreak eta Sorgiñen ekimenak bizia ematen dio herriari. Denak gaude sua pizteko zain, baina aurreko minutuetan entreenituta egotea polita da".

Antton Jauregi Txanbolineko alma mater-a da: "Urte asko dira San Juan bezperako ekintza abiatu genuenetik. Aldaketa asko egon da urte hauetan guztietan. Helburua beti izan da herriari zerbait polita eskaintzea. Horretan saiatzen gara. Sorgiñek eta Udal Musika Eskolako ikasleek ere euren aletxoak jarri dute".

Kalejira, Arin-arina eta Xorieri kantuak jo zituzten Izarok eta Marenek, Udal Musika eskolako lagunekin batera. San Juan bezperako gaua udaren seinale da. Eta zer egingo dute udan. Erantzuna argi dute bidek. Marenek, "oporraz gozatu", erantzun du. Izarok, berriz, "udal igerilekura joan, batez ere". Lagunekin, nola ez. Uda on!



San Juan sua eta Akelarrea: jarraipen zabala webgunean

Argazkiak, bideoak, adierazpenak klik bakarrera

**AIURRI.EUS/URNIETA**

www.aiurri.eus



## DEIALDIA

1976KO KINTOEN ANTOLAKETA TALDEA ANDOAIN

### 1976an jaio eta 50 urte beteko dituztenen ospakizuna

Andoainen 1976an jaiotakoak 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia antolatzen ari dira, herriarekin lotura duten ahalik eta pertsona gehienekin partekatu nahi duten hitzordu berezia.

Topaketa 2026ko urriaren 3an izango da, eta bazkaria Urnietako Oianume jatetxean egingo da. Ekimen honen helburua 1976an Andoainen jaiotako guztiak elkartzea da, baita herrian urte luzez bizi izan direnak edo beren burua andoaindartzat jotzen dutenak ere.

Ospakizun honen xedea belaunaldi bereko pertsonen arteko elkargune bat sortzea da, berriz elkartzeko, oroitzapenak partekatzeko eta egun atsegin bat giro hurbil eta alaietan igarotzeko.

Antolatzaileek interesa duten guztiei lehenbailehen izena ematera animatzen diete, izena emateko azken eguna 2026ko ekainaren 30a izango baita. Horretarako, 1976andoain@gmail.com helbide elektronikoa jarri da erabilgarri, eta bertara datu pertsonalak bidali behar dira. Ondoren, parte-hartzaileak WhatsApp talde batean sartuko dira, non egunaren inguruko zehetasun guztiak eta egitaraua jakinaraziko diren".



Urriaren 3an da hitzordua.



AIURRI

### Egunean Behin lehiaketa

Tokikom Ligako seigarren astean, Aiurri (Beterrí-Buruntza) taldeko partaideen artean, zozketa egin eta irabazlea "Jon Ander" adunarra izan da. Dagoeneko jaso du Gaztañagako sagardo-botila sorta, Aiurrikoen eskutik. Zorionak eta on egin!

### Harrera ekitaldia Urnietara iritsi berri diren lagunei

Urnietako Udalak ongi etorri egin die azken hilabeteotan herrira iritsi berri diren pertsonen aurkezpen-ekitaldia Herme Gonzalez Udaleko bigarren alkate-ordeak zuzendu zuen. Udalean ordezkari izan diren talde politikoetako eta gizarte bizitzaren hainbat ordezkari ere bertan izan ziren. Udal-zerbitzuen berri izan zuten Lekaioako saioan.



Ekitaldia Lekaion izan zen. UDALA

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

**Nahia**  
Ekainaren 23an, 12 urte bete dituzu. Muxu eta besarkada handi bat aitona Peio eta amona Esperen partetik. Ondo pasa!

## Agenda bateratua:

### Udaleko eta herriko ekintzen topagunea.

Andoaingo Udalak "ANDOAIN BAT" kaleratuko du, herrian antolatzen diren jarduerak bilduko dituen agenda bateratua. Proiektuak hiru dimentsio izango ditu: aplikazioa, webgunea eta eskuorria.

- Mugikorrerako app-a**  
 Ekitaldi guztien agenda eta gehiago. Eskaneatu QR kodea aplikazioa deskargatzeko.
- Webgunea**  
 Kontsultatu guztia andoainbat.eus webgunean, beti eguneratuta.
- Eskuorria**  
 Hilabeteko programa paperean. Herriko gune hauetan eskuragarri egongo da: Ataria, Ambrosia Olabide, Urigain, Arrate, Bastero Kulturagunea, Liburutegia, Gazte Lokala, Ludoteka eta Allurralde.

Android

iOS